

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2016-05-05 Lekua: Santa Klararen Jauregia. Ordua: 17:00 –18:30

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo
Gizatiar: Begoña Fernández
Eskuz-Esku: Isabel Pérez
Roda: Clara Lorenzo
EH Bildu: Arantza Gutiérrez
Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Paula Amieva
Udal Talde Sozialista: Josefina García
Talde Popularra: Susana De Cos
Kontseiluburua: Keltse Eiguren
Idazkaria: Idoia Eizmendi

Ez dira bertaratu

ELA
Mujeres con Voz
Berritzegune

Aztergai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea
- M 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna, baloratzea
- Kontseiluaren prestakuntzaren balorazioa
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa
- Ekainaren 28a, gay, lesbianen, transexualen eta bisexualen harrotasunaren eguna

- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta onartu da.

M 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna, baloratzea

Berdintasun zinegotziak planteatu du, ohi den legez, balorazioak egiteko erronda egingo dela.

Eskuz esku-ren ordezkariak adierazi du *Aktibatu zeure ahotsa* tailerrean eta ondorengo performancean parte hartu zuela, eta oso balorazio positiboa egiten duela. Haren ustez oso talde polita sortu zen, oso giro onarekin, eta martxoaren 6ko jarduerak asko gustatu zitzaizkion. Eskuz esku-ren hainbat bazkide joan ziren performancea ikustera.

Bere elkarteak erantzukizun partekatuari buruzko ipuin bat sortzeko antolatu zuen tailerrari dagokionez, 20 emakumetik gora parte hartu zuten, eta balorazioak askotarikoak izan dira.

Gizatiar elkarteak balorazio positiboa egin du CEAREk emakume errefuxiatuei buruz antolatu zuen hitzaldiaz. Gizatiar elkarteak Berdintasun Kontseiluan dauzkan bi ordezkariak *Aktibatu zeure ahotsa* tailerrean eta performancean parte hartu zuten eta adierazi dute oso positiboa izan zela. Prestatzaileen lana bereziki baloratu dute. Gizatiarren zenbait bazkidek world cafe-an eta performancean parte hartu dute. Urtero martxoaren 8an egiten duten bazkariak ere harrera bikaina izan zuen.

Gukek adierazi du hilaren 6ko jardueretara bakarrik joan zela eta oso pozik dagoela esperientziarekin. Izan ere, mahai bat moderatzeko aukera izan zuenez zenbait iritzi entzun ahal izan zituen galdera berberen inguruan. Horrez gain, oso balorazio positiboa egin du horma-irudiaz, ideia nagusiak oso modu argian jaso baitzituen. Performancea ere zoragarria iruditu zitzaion.

EH Bilduk Algortako manifestazioa nabarmendu du. Adierazi duenez, gazte asko etorri ziren, eta zehazki mutil gazteak. Gizatiarren ordezkariak erantsi du Romon ere parte hartze handia egon zela, gazteena ere bai.

Bilgune Feministaren ustez, martxoaren 6ko jardunaldia oso positiboa izan zen. Adierazi du material asko jaso zela world café-ko gogoetatik eta horrekin guztiarekin zerbait egin gura dutela, hurrengoan zerotik hasi behar ez izateko eta egindako lana alferrik ez galtzeko. Beste elkarte batzuk animatu ditu elkarrekin pentsatzera zer egin dezaketen material horrekin guztiarekin. Beraren ustez zubi bat egiten ari gara, emakume ezberdinak, hainbat elkartetakoak, batzeko. Aurreiritziak gainditzen ari gara eta horrek oso energia positiboa sortzen du.

Bilgune Feministak poema-errezitaldian parte hartu zuen, Itxaro Bordaren poemekin eta Itsaso Rodríguez-en musikarekin. Oso balorazio positiboa egin dute ekitaldi horretaz eta Euskara eta Berdintasun zerbitzuek elkarrekin hasi duten lanaz.

Berdintasun teknikariak informazioa eskaini du udalak antolatu dituen jardueretako asistentziari buruz:

- Aktibatu zeure ahotsa tailerra: 50ek eman zuten izena, 23 etorri ziren eta performancea 15 inguruk egin zuten
- Denboraren erabilerei buruzko hitzaldia: 12 pertsona
- Ipuin kontalaria: 12 pertsona
- Poema musikatuak: 40 inguru

Berdintasun teknikariak baloratu du poesia emanaldira eta tailerretara jende asko etorri zela. Baina ipuin kontalariak eta hitzaldiaz esan du berarentzat ahalegin handia dela jarduerak antolatzea eta Algortan gauera arte egotea, ez du merezi, hain jende gutxi etortzen baldin bada. Ipuin kontalaria asko gustatu zitzaion, baina pixka bat tristea izan zen hain jende gutxi etortzea. Uste du elkarteek batetik eta udalak bestetik ekitaldi gehiegi antolatzen dituztela martxoaren 8an eta azaroaren 25ean, eta zaila da denetara joatea jendea.

Berdintasun zinegotziak galdetu du zenbat jende joan zen world café-ra eta Bilgune Feministak esan du goiz osoan zehar world café-ra, horma-irudira eta performancera 80 eta 90 emakume bitartean joan zirela.

Kontseiluaren prestakuntzaren balorazioa

Berdintasun teknikariak datu sistematizatuak eskaini ditu berdintasun politiketako prestakuntzaren gaineko ebaluazioei buruz, kontseiluko pertsonentzat antolatu dena. Prestakuntza horretan 16 pertsonak parte hartu dute (berdintasun zinegotzia eta teknikaria kontuan izan gabe).

Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa

Berdintasun zinegotziak adierazi du kontseiluaren azken batzarrean testuari buruz eztabaida luzea egin zela. Berdintasun teknikariak zirriborroa bidali zuen, sartu ziren ekarpenekin, eta eztabaida sorrarazi zuten gaiei buruzko erabakiak hartzeko unea da hau. Gairik garrantzitsuenak bi izan ziren: adierazpen instituzionalak eta salaketa-elkarretaratzeak egiteko biktimaren adostasuna beharrezkoa izan behar den edo ez, eta erasoaren larritasuna nola erabaki (protokoloan zehaztuz gero).

EH Bilduk honakoa proposatu du: batetik, "bereziki larria" esaera kentzea, eta bestetik, biktimak hasiera batean bere adostasuna ematen ez badu, baina denbora bat igarotakoan ematen badu, haren erabakia kontuan izan dadila adierazpen instituzionala edota elkarretaratze-deialdi bat egiteko orduan.

Ciudadanosek larria eta bereziki larria bereiztea proposatu zuen, baina "bereziki" hitza kentzeko proposamenarekin ados dago.

Ados gaude biktimaren adostasuna beharrezkoa izatearekin edozein esku hartze publiko egiteko.

Eskuz esku-k galdetu du zer gertatuko ote litzatekeen baldin eta biktimak udalari eskatzen badio komunikatu bat plazaratzeko, zurrumuru asko daudelako eta gauzak nola jazo ziren argitu nahi duelako. Berdintasun zinegotziak erantzun du: Ertzaintzak biktimari galdetzen dio salaketa jarri nahi duen. Noski, gerora egin gura badu, egin dezake. Berdintasun teknikariak argitu du, bere esperientziaren arabera, salaketa egiteak ez dakarrela Udalak defendatzea gertatutakoa biktimak salatu duena denik, batez ere auzia ikergai badago. Berdintasun zinegotziak esan du hala dela, kasuak banan-banan aztertzen direla.

Bilgune Feministak adierazi du faltan botatzen duela emakume taldeekin eta talde feministekin solaskidetza egotea. Argi jakin nahi du protokoloak zehazten duen edo ez udalak zer egingo duen eraso baten aurrean. Berdintasun zinegotziak erantzun du udalak Kontseiluaren iritzia jaso gura izan dituela, protokoloa modu aldebakarrean ez egiteko. Elkarreak libre dira edozein jarduketa egiteko, baina interesgarria litzateke elkarrekin jardutea.

Bilgune Feministak galdetu du elkarteei kasu guztietan informazioa emango ote zaien. Berdintasun zinegotziak erantzun du protokoloa aktibatuz gero bakarrik egingo dela. Bilgune Feministak uste du gorabeheren erregistro bat egin litekeela eta urte amaieran aurkeztu. Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du dauzkaten datuak poliziarenak direla. Bilgune Feministaren ustetan, kasu guztiak ez dira poliziarengana iristen. Badaude fidatzen ez diren pertsonak, poliziak zalantzatan jartzen zaituelako eta ez delako samurra eraso baten ondoren salaketa poliziala egitea. Uste du kasu batzuk elkarteengana iristen direla, baina ez poliziarengana.

EH Bilduk gogora ekarri du protokoloa aktibatu daitekeela esku hartze polizial bat egon delako edo zantzu argiak daudelako.

Ekainaren 28a, gay, lesbianen, transexualen eta bisexualen harrotasunaren eguna

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du urtero bezala gai honen inguruan sentsibilitatea sortzeko asmoz jardueraren bat egin nahi dela: hitzaldia edo mahai-ingurua, zerbait ludikoa.

Aste pare bat eman dira taldeek proposamenak egin ahal izateko.

Informazioak

Leku aldaketa

Berdintasun teknikariak jakinarazi du Berdintasun Zerbitzua Urgull kalera aldatu dela, Gizarte Zerbitzuetara alegia

Jabekuntza Eskolako jardunaldia

Adierazi du, era berean, jabekuntza eskolen sareko ikasturte amaierako jardunaldia ekainaren 11n egingo dela Basaurin, Marienean, eta aztertuko den gaia hau dela: errefuxiatuen krisiari begirada feminista eskaintzea.

Jaiak

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du urtero bezala kanpainaren bat egingo dela udalerriko jaietan. Gogorarazi du iazko kanpainan zerbait ezberdina egin zela, parte hartzea bultzatzeko asmoz. Emaitza ez zen oso ona izan; beraz, agian kartelak jartzea baino ez da proposatuko.

Galde-eskeak

Martikoenako lokala

Bilgune Feministak galdetu du nola antolatuko den Martikoenako lokala Eskuz esku-ren leku-aldaketarekin. Eskuz esku-k erantzun du batzar gela bulego moduan erabiliko dutela eta sexu-informazioko bulegoko lokala, berriz, aholkularitza juridikoa eta psikologikoa eskaintzeko.

Emakumearen Etxea

Bilgune Feministak Emakumeen Etxeari buruzko gogoeta prozesura bideratutako 50.000 euroei buruz galdetu du. Azaldu du Martikoenako lokala txiki geratzen ari dela eta jakin nahi du Etxe horretarako lokalen bat aurreikusi den.

Berdintasun zinegotziak erantzun du aurrekontu-akordio baten ondorioz partida bat sartu dela Parte Hartze Arloarentzat, ez Berdintasun Arloarentzat, eta gogoeta prozesu bat egingo dela, jakiteko herritarrek emakumeen etxe bat gura duten ala ez.

Berdintasun teknikaria harrিতa dago akordioaren edukia hori delako. Galdetu du gai horri buruz nori galdetuko zaion. EAJren ordezkariak erantzun du oraindik ez dakitela baina argi dagoela ez zaiela Kontseiluan dauden pertsoneri bakarrik galdetuko, bestela emaitza argi geratuko litzateke-eta.

HURRENGO BATZARRA EKAINAREN 9an, 17:00etan.